


HIKA ANTZERKI TALDEAK


aurkezten du

"XAGUKUMEAK"

HAUR ANTZERKIA



*KAIXO! NI MAIXA
NAIZ, HERRIKO
XAGUKUMERIK
POLITENA!!
DEITU 943-472688
ETA PRIMERAN
PASAKO DUGU
KANTUAN,
DANTZAN...*



*KAIXO! NI KONTXU NAIZ!!!
FESTETAN ZAUNETELA?...UM!!!
FERIAK, PIRULETAK,
ANTZERKIA, HITZ
GURUTZATUAK.....EGIA AL DA
GUZTI HORI? HOLA
BADA...XAGUZULOTIK
KANPORA! NI NAIZ
XAGUKUMERIK AUSARTENA!!!!*

Nork **asmatu** duen historia hau?:

Pentsatu, xaguek pentsatu zuten: *Belen Cruz*
Agurtzane Intxaurreaga

Idatzi hitzez-hitz: *Agurtzane Intxaurreaga*

Nortzuk garen? KONTXU XAGUKUMEA: *Belen Cruz*
MAIXA XAGUKUMEA: *Agurtzane Intxaurreaga*
Miren Gojenola
XERAFIN XAGUHARRAPATZAILEA: *Mikel laskurain*

Produkzio koordinatzailea.....ba, bera ere bai: *Belen Cruz*.

Atrezzo diseinu eta egileak hauek dira: *Joseba Aierbe, Aitziber Unanue,*
Nagore leoz, Mikel laskurain

Jantzien ardura berak izan du: *Belen cruz*

Gure **teknikalari** zoragarria bera da: *Miren Gojenola, Agurtzane Intxaurreaga*

Nork **asmatu** duen **Do, re, mi, fa, sol**? *Joxan Goikoetxea* eta *Hika*

Nork izan du **hizkuntzaren** ardura? Betikoak! Gure filologoak: *Ritxi Lizartza*

Nor izan den "**marimaistra**" Bai! **Zuzendu** duena: *Agurtzane Intxaurreaga*

Eta nori esker egin da hau???? *HIKA ANTZERKI TALDEA s.l.*. Baina baditugu beste asko eskerrak hartzeko: *Usurbilgo Udala, Taun-Taun Antzerki Taldea, Oier* gure mutikotxoa, *Jon* gure sasi alkatea eta gure alboan egon diren beste asko. Adibidez *Haitz* gure txakurra

Salmenta: Belen Cruz.
943-47.26.88
943-47.26.88

Maixa eta Kontxu bi xagukume dira, ahizpatxoak. Gaur herriko festak direnez biak daude irrikitan bertara joateko. Maixak enparantzan izango den antzerki antzezlanak ikusi nahi duelako, besteari ordea bost axola artistak, berak hitz gurutzatuen azken alea erosi nahi du eta feriak ikusi. Ama xaguak ordea gaur ez die ateratzen utziko, garai honetan herrian xaguharrapatzailea ibiltzen delako xaguak harrapatu nahian. Baina Maixak eta Kontxuk amaren esanei uko eginez, bera lotan dagoenean ihes egingo dute. Bizikleta hartu eta korrika joango dira enparantzara.

Heldu bezain laister Maixak antzerki emanaldia hastekotan dela ikusiko du, eta ume guztiak agurtu eta gero, artistaren bila hasiko mutikoen artean. Kontxu nazkatuta dago bere ahizpatxoarekin, herriko mutil guztiekin maitemintzen delako, ondorioz eta askotan bezalaxe eztabaidan hasiko dira elkarren artean. Horretan daudela, Xerafin "artista" azalduko da atzekaldetik. Maixa berehala maiteminduko da berarekin. Kontxuk ordea susmo txarra hartuko dio hasiera-hasieratik. Umeek ere bai, gure xagukumeak etorri aurretik, orain Xerafin delako artistaren antza handia zuen xaguharrapatzaile bat ikusi dutelako. Xerafinek laister erakarriko ditu bi xagukumeak, soinua probatzeko euren laguntza estimatuko duela adieraziz. Hauek gustora hartzen dute konbitea, Maixak batez ere. Xerafinek ez du denborarik galduko, bi xaguak umeekin batera abesten daudela aprobetxatuz bere xagutranpa martxan jarri eta biak harrapatzen ahaleginduko da... Eskerrak umeei! Hauek gertatuko dena ikusi eta ausart-ausart arriskuaz ohartarazten die bi xagutxoei..... Xerafinek berehala alde egingo du, ez alde aurretik merezitako eskarmentua hartu barik. Baina jakina, etsi, ez du etsiko!! Handik lasterrera beste ahalegin begingo du.... baina gure xagutxoak ere ez dira kokilduko eta auskalo nork irabaziko duen historia honetan!!!!

HIKA Antzerki taldeak esan digu eskatzeko:

Kalean bada: Eguneko argia, eguraldi ona, soinua martxan jartzeko toma arrunta, eta arduradun bat.

Aretoan bada: 3'5 metrotako altuera, 5metrotako zabalera eta 5 metrotako sakonera. 15.000 watiotako argindarra, eta arduradun bat . Eskailera bat eszenatokitik erraz jeisteko.

ETA UMEAK, UMEAK, ETA UMEAK, UMEAK,
UMEAK,...



Antzerki historia ederra bizitzeaz gain, antzezlan honek **joku didaktiko** bat proposatzen die umeei. **Hitz gurutzatu** bat osatu beharra bizi berri duten historiari buruzko galderekin eta baita xaguekin loturiko galderekin. Ume bakoitzak amaieran hitz gurutzatuen aletxo bat hartuko du eta bukatugabe dagoenez, **etxean gurasoekin batera** egiteko proposatuko diegu. Ondoren gure **helbidera bidali** eta guk **sorpresa txiki** bat igorriko diegu....

Orain arte asko eta asko dira jasotako gutunak!!!!